



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2015EKO MARTXOAREN 24KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: bilera berezia.
Eguna: 2015.03.24.
Ordua: Goizeko 8:15ean.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Ander Almandoz Indacoechea jn.
Zinegotziak:
Koldobike Gorostiza Uriguen and
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Mikel Leiza Etxeberria jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Izandako atxiloketaren salaketa.
- 2.-Bertiz Partuergo Turistikoa: bide berdearen lagapenaren onespena.

1.-IZANDAKO ATXILOKETAREN SALAKETA.

Larunbat goizean, Paris inguruko Réau-ko kartzelan, ikustaldi-sarrerako kontrolean, haurraren bizkar-zorroan bere telefonoa ahaztu zuelako Eli Iturria Almandoz andrea eta bere alaba Jare, Mikel Karrera Sarobe euskal preso politikoaren bikotekidea eta alaba atxilotu zituzten, Melungo polizia-etxera eramanez.

Bertan ama eta alaba bereizi zituzten eta gauerarte bakarrik eduki zuten, pertsona arrotzekin. Gau partean askatu zituzten zitazio batekin.

Hori dela kontuan hartuz, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Salatzea ume tiki bat bere amarengatik bereizita edukitzea egun erdi bat telefono mugikorra poltsan ahazteagatik .
- 2) Salatzea Eli Iturria andreari eman zioten tratoa, denon eskubidea den telefono deia egitea ukatuz, ofizioko abokatua deklarazioa erdian joan zelarik.
- 3) Salatzea Euskal preso politikoak deportatuta eta sakabanatuta dituztela. Beren senide eta lagunak milaka kilometro egin behar dituzte haiek ikustera joateko, horrelako bidaia baten diru gastu, denbora, neke eta tentsioarekin. Laister 26 urte dira sakabanaketarekin hasi zirela. Amaitu egin behar da sakabanaketa eta deportazioarekin eta senide eta lagunak zigor erantsiarekin; Aski da! Euskal presoal Euskal herrira!
- 4) Akordio hau Pariseko Réauko kartzelara igortzea.

2.-BERTIZ PARTUERGO TURISTIKOA: BIDE BERDEAREN LAGAPENAREN ONESPENA.

Bertizeko Turismo Partzuergoak, likidazio batzordearen bitartez, Bidasoako Bide Berdearen jabetza eta kudeaketa emanen dio Cederna-Garalur Elkarteari, Endarlatsa eta Doneztebe arteko eremuan, administrazio espediente honetan zehazten diren edukietan eta baldintzetan.

Udal hau Bertizeko Turismo Partzuergo likidatuaren partaidea da eta egoki ikusten du ibilbide berde honen mantentze eta kudeaketa gastuei aurre egitea, baita lagapen honen aurretik egin ziren zenbait gasturena ere (desjabetzeak...). Honela, kudeaketa eta subrogazio honek ez dio inolako kosturik suposatuko Cederna-Garalur Elkarteari.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1. Udal hau behartuta dago Bidasoako Ibilbide Berdearen zati horren mantentze eta gastuei aurre egitea, baita lagapen honen aurretik egin ziren zenbait gasturena ere (desjabetzeak...). Honela, kudeaketa eta subrogazio honek ez dio inolako kosturik suposatuko Cederna-Garalur Elkarteari. Honela zehaztuta dago administrazio espedientean.

2. Behar honen arau bilduma honako hau izanen da:

- Ordainketak zuzenean egitea, lehenago Cederna-Garalurrek ez du inolako ordainketarik egin beharko.
- Dokumentua sinatzea, Udaleko lehendakaria horretara baimentzen duena, kasu honetan publikoa, akordio hau zehazten duena.
- Hitzarmen hau onartzea modu administratiboan. Honela, zorra egonez gero administratiboki erreklamatzeko aukera izateko.

Bertzerik gabe, goizeko 8:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAk,
Ander Almandoz Indacoechea.



The image shows the official seal of the Ayuntamiento of Bidassoa, which is circular and contains the coat of arms of the town. The seal is stamped in blue ink. To the right of the seal, there is a handwritten signature in blue ink that appears to read 'muller'. A large, stylized blue scribble is present on the left side of the page, partially overlapping the seal.